

Gipuzkoako Emakumeen Etxeen eredia definitzeko lurralde-mailako proiektu esperimentalaren memoria-txostena



GIPUZKOA
ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro





AURKIBIDEA:

1. Sarrera	3
2. Helburuak eta printzipioak.....	4
3. Partaideak.....	5
4. Erronkak eta lan ildoak.....	7
5. Lan ildoak pausoz pauso.....	9
6. Egitasmo osoaren balorazioa.....	22
7. Aurrera begira kontuan hartzekoak.....	27

1. SARRERA

Azken hamarkadan nabarmen hazi da Emakumeen Etxeen kopurua Gipuzkoan, eta gero eta gehiago dira Emakumeen Etxeak dituzten udalerriak. Emakumeen Etxeak ekipamendu estrategikoak dira emakume eta gizonen berdintasunean aurrerapausoak emateko, emakumeen ahalduntzea sustatu eta indarkeria matxistari aurre egiteko.

Gure lurraldean sortzen ari diren Emakumeen Etxeek badute berezitasun bat, eremu publikoaren eta komunitarioaren elkarlanetik sortutako ekipamenduak direla alegia. Horrenbestez, Gipuzkoako Emakumeen Etxeek bi helduleku garrantzitsu dituzte: Batetik, eragile feministek eta emakume-elkartek sustapen-lan handia egin ohi dute, eta Etxeen dinamika bertan ere giltzarri nagusietako bat dira. Bestetik, udalek eskaera eta behar horren lekukoa hartu eta bide eman izan diote, beharrezko bitartekoak jarritz, besteak beste (eta, kasu batzuetan Etxeen sorrera bera ere sustatuz). Beraz, Emakumeen Etxeetan bi eremuek bat egiten dute: Eremu publikoak eta mugimendu sozialak.

Era berean, lurraldeko Emakumeen Etxeek badituzte oinarri komun batzuk:

- Emakumeen ahalduntze indibiduala eta kolektiboa lantzea dute helburu nagusi.
- Emakumeen eta eragile feministen arteko sareak sustatzen dituzte.
- Indarkeria matxistari ikuspegi integraletik aurre egiteko gune estrategikoak dira, prebentzio eta sentsibilizaziotik hasi eta esku hartzeraino: arreta eskaini, kasuak deribatu, erreparazioa landu, e.a.
- Mugimendu feminista eta emakume-taldeentzako topaleku eta lantoki dira.
- Emakumeentzako leku seguruak eta konfiantzazkoak dira, ahizpatasunaren balioa praktikan jarritz.
- Ekipamendu hauen helburua berdintasuna eta eraldaketa soziala dira eta norabide horretan egiten dute lan, egiten dutenari bezain besteko garrantzia emanez egiteko moduei. Horregatik, Emakumeen Etxeen egunerokotasunean emakumeei eman nahi zaie protagonismoa eta emakumeek zeresan handia dute Etxeen kudeaketan eta bilakaeran.

Gipuzkoako Foru Aldunditik ekipamendu berritzaile hauetan jarri nahi izan da begirada, Gipuzkoan garatzen ari den eredia aztertu eta osatzeko asmoz. Horretarako, *Etorkizuna Eraikiz-en* baitan, Emakumeen Etxeak indartzeko lurralde-mailako egitasmo experimental bat garatu da, emakume eta gizonen berdintasunerako eta indarkeria matxistaren kontrako ekipamendu estrategikoak diren neurrian. Egitasmo honek bi fase izan ditu: Lehena, egitasmoa definitzeko fasea, 2021eko apiriletik uztaila bitarte iraun duena, eta bigarrena, egitasmo experimentalaren garapen fasea, 2021eko irailtik 2023ko urtarrilera luzatu dena.

Txosten honetan bigarren faseak eman duena jasotzen da. Txostenaren sarreran, kokapen gisa, proiektuaren helburuak eta printzipioak jaso dira, baita egitasmoaren bidez erantzun nahi izan diren erronkak ere. Ondoren erronka horiei aurre egiteko 16 hilabeteetan zehar landu diren lau lan ildoak garatzen dira dokumentuan, eta azkenik, egitasmoak eman dituen emaitzak eta dokumentuak biltzen dira.

Egitasmo honetan eragile askok hartu dute parte, eta ezin esan gabe utzi ezinezkoa izango litzatekela egitasmoak eman duen guztia aurrera ateratzea beraien ekarpenik gabe. Eskerrak, beraz, Gipuzkoako Emakumeen Etxeetako berdintasun teknikari eta dinamizatzailerei, udal-ordezkariei politikoei, Aldundiko Gizarte Politikako Departamenduari, EHU eta Deusto unibertsitateko ikerketa-taldeeiei, Urola Garaiko eta Errenteriako udaletako gizarte-langileei, Sortzen eta Beta aholkularitzei, eta beren iritzia eman duten Eibar eta Zumaiako emakume guztiei.

2. HELBURUAK eta PRINTZIOAK

Egitasmo esperimentalaren diseinu fasean helburu hauek zehaztu ziren:

Helburu nagusia izan da, **Gipuzkoako udalerrietako Emakumeen Etxeen eredia garatzea**, indarkeria matxistaren kontrako eta berdintasunerako ekipamendu estrategiko gisa.

Zehazki:

1. Gipuzkoa-mailan garatu den eredia bildu eta aztertzea, eredu propioan sakontzeko.
2. Indarkeria matxistari ahalduntzearen ikuspegitik aurre egiteko Emakumeen Etxeen rola eta zerbitzuak aztertu eta ikaspenak ateratzea, Gizarte-politikekin elkarlanean eta koherentzian sakontzeko eta eskaintza osoa hobetzeko.
3. Etengabeko berrikuntzaren ikuspegiarekin lan egitea, indarguneak, zailtasunak, aukerak eta erronkak identifikatzea, eta horiei lurralde-mailan elkarrekin erantzuteko aukerak aztertzeko.

Helburu horietara iristeko ezarri den lan egiteko modua *Etorkizuna Eraikiz*-en printzipioen araberakoa izan da:



BERRIKUNTZA-IKUSPEGIA

Egitasmo osoan zehar etengabeko berrikuntza-ikuspegiarekin lan egin da eta partaideek ere hala egin dezaten sustatu da.



LANKIDETZAZKO GOBERNANTZA

Udal teknikari, eta Aldundiko teknikarien arteko elkarlana, berdintasun politiken eta gizarte politiken arloetako langileak, ordezkari politikoak, unibertsitateko ikerlariak, hainbat herritarrek, eta zenbait aholkularitzek hartu dute parte egitasmoan.



GURE LURRALDEAZ HARAGOKO BEGIRADA

Unibertsitateko ikerlarien bidez gure lurraldeaz haragoko esperientziak ezagutu dira eta ikuspegia irekitzeko, inspiratzeko eta ikasteko balio izan du.

Hiru printzipio hauekin egin da lan proiektuak iraun duen 16 hilabeteetan, 2021eko irailetik 2023ko urtarrilera arte.

3. PARTAIDEAK

Proiektu esperimentalean lurraldeko hainbat eragile aritu dira lanean:

Batetik, hausnarketarako eta lanerako gune tekniko iraunkor bat egon da, zeinetan Gipuzkoako **Emakumeen Etxeetako berdintasunerako teknikari eta dinamizatzaileek** parte hartu duten. Goiz osoko 6 hausnarketa mintegi egin dira gune honetan.

Bestetik, egitasmoaren koordinazioa eta jarraipena gidatu duten agenteak izan dira **Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasun Organoa eta Etorkizuna Eraikiz-en ardura duen Estrategia Zuzendaritza**. Koordinazio marko honen 6 bilera egin dira.

Azkenik, kontraste politikoa egin da Emakumeen Etxea daukaten **udaletako berdintasun politiken** arduradunekin. Fase honetan eragile hauekin bi bilera egin dira, proiektuaren hasieran eta bukaeran.

Guzti horrez gain, bestelako lanketei lotuta, unibertsitateko ikerlariak, zenbait udalerrietako gizarte-langileak eta hainbat gipuzkoarren ahotsak jaso dira proiektuan.

Batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko emakume eta gizonen berdintasunari lotutako **unibertsitateetako hiru ikerketa taldeek** proiektua aberasteko ezagutza ekarri dute idatziz, nahiz aurrez aurreko hausnarketa saioetan parte hartuz:

- EHUko Antropologia Feministarako Ikerketa Taldea.
- EHUko Emakume eta gizonen berdintasunari buruzko masterreko Ikerketa Taldea.
- Deusto Balio Sozialak Ikerketa Taldea.

Bestetik, emakumeen aurkako indarkeria matxistan esku-hartzea hobetzeko proiektu esperimentalaren garapenean Urola-Garaiko eta Errenteriako **hainbat gizarte-langilek** ere hartu dute parte. Esperimentazio hau Aldundiko Gizarte Politikako Departamenduarekin kontrastatuta garatu da.

Azkenik, Emakumeen Etxeen inguruko iritzi eta pertzepzioak ezagutzeko asmoz entzute aktiboko ariketa bat burutu da, Eibar eta Zumaiaiko **60 emakume elkarrizketatuz**. Helburua, elkarrizketaren ondorioetatik ikaspenak ateratzea izan da.

Prozesuan parte hartu duten agenteen eskema ikus daiteke beheko irudian:



Urdinez, Aldundiaren aldetik parte hartu duten agenteak zehaztu dira, eta berdez daudenak udalekin lotutakoak. Laranja azaltzen direnak bestelako kanpo eragileak dira.

Esan beharra dago gizarte langileek indarkeria matxistari buruzko lan ildoan hartu dutela parte bereziki, eta erabiltzaile eta emakume gipuzkoarrek entzute aktiboaren ariketan.

Bestetik, Emakumeen Etxeei dagokionez, Gipuzkoako 13 udalerrri eta 2 eskualdeetako Emakumeen Etxeek hartu dute parte.

EMAKUMEEN ETXEAU DAUZKATENAK	ERATZE BIDEAN DAUDENAK
<ul style="list-style-type: none"> • Arrasate (2003) • Eibar (2004) • Donostia (2010) • Azpeitia (2011) • Hernani (2013) • Errenteri (2019) • Urola-Garaia (2019) • Zarautz (2020) • Zumaia (2021) • Elgoibar (2021) • Astigarraga (2021) 	<ul style="list-style-type: none"> • Tolosaldea (2023) • Irun (2023) • Usurbil (2023) • Oñati (prozesuan)



4. ERRONKAK eta LAN ILDOAK

Egitasmoaren diseinu faseak iraun zuen 4 hilabeteetan 6 bilera egin ziren 2021ean: 2 bilera udal ordezkari politikoeekin, 2 Emakumeen Etxeetako berdintasun teknikari eta dinamizatzaileekin eta 2 unibertsitateko ikerlariekin.

Prozesu horren emaitza “[Gipuzkoako Emakumeen Etxeen eredura bidean: Etxeen ezaugarri nagusiak eta etorkizunerako erronkak](#)” txostenean bilduta dago. Bertan, Gipuzkoako Emakumeen Etxeak zer diren aztertu zen. Batetik, ekipamendu hauen ezaugarri komunak, eta bestetik, indargune eta ahulguneak. Diagnostiko edo argazki horretatik eratorri ziren aurrera begira garatutako egitasmoak erantzun behar zituen erronkak, hau da, **Gipuzkoako Emakumeen Etxeek zituzten erronkak**. Bost hauek identifikatu ziren:

1. Emakumeen Etxeen ekarpena aitortu eta balioestea.
2. Emakumeen Etxeen ezaugarrietan sakontzea:
 - a) Gobernantza kolaboratiboa:
 - i. Publiko-komunitario elkarlana
 - ii. Emakumeen partaidetza
 - b) Ahalduntze eta erreparazioarako ekipamendu-izaera
 - c) Irismena, aniztasuna
3. Emakumeen Etxeen ekarpena sistematizatzea.
4. Indarkeria matxistari aurre egiteko politika sozialekin koordinazioa eta osagarritasuna hobetzea.
5. Aipatutako erronkei aurre egiteko beharrezko baliabideak identifikatzea.

Erronka horiei erantzuteko lau lan ildo barneratu zituen egitasmoa diseinatu zen, eta prozesuaren emaitza gisa, hainbat dokumentu edo produktu sortzea aurreikusi zen. **Hauek izan dira lan ildoak:**

1.HAUSNARKETA	Gipuzkoako Emakumeen Etxeen gunea: HELBURUA: Hausnarketa kolektiboa erudian sakontzeko eta berrikuntza sustatzeko.
2.IKERKETA	Unibertsitateko 3 ikerketa talderen analisiak. HELBURUA: Gipuzkoatik kanpoko esperientziekin, proiektua aberastea.
3.ESPERIMENTAZIOA	Urola Garaian eta Erreterian pilotajea. HELBURUA: Emakumeen Etxeetatik indarkeria matxistan egiten den esku hartzea hobetzea, Gizarte Politikarekin elkarlanean.
4.ENTZUTE-AKTIBOA	Eibar eta Zumaian Entzute Aktiboaren ariketa. Helburua: Emakumeen iritzi eta pertzepzioak ezagutzea, Emakumeen Etxeen inguruan.

Egitasmoaren diseinuan aurreikusitako **emaitza edo produktuak** hauek dira:

PRODUKTUAK

GIPUZKOAKO EMAKUMEEN ETXEEN GIDA

Ekipamendu hauek zer diren, nola sortzen diren eta nola funtzionatzen duten azaltzen duen dokumentua da.

GIPUZKOAKO EMAKUMEEN ETXEEN ZERBITZUEN KARTA

Emakumeen Etxeetan eskaintzen diren eta eskaini daitezkeen zerbitzuak biltzen ditu.

INFORMAZIOA ETA DATUAK SISTEMATIZATZEKO TRESNA

Emakumeen Etxeetan egiten den lana sistematizatzeko lan tresna da.

INDARKERIA MATXISTEN AURREAN ESKU-HARTZEA HOBETZEKO TRESNAK

Emakumeen Etxeetan kasuen kudeaketa hobetzeko eta Gizarte Zerbitzuekin koordinazioa hobetzeko tresnak proposatzen ditu.

Produktu hauez gain, bestelako materiala ere sortu da egitasmoan zehar, esaterako, unibertsitateko ikerketen ondorioak eta entzute aktiboaren ariketaren emaitza.

IKERKETAK

MUGIMENDU FEMINISTA ETA EMAKUMEEN ETXEAK: POLITIKA EGITEKO MODUAK, HARREMANAK ETA ERRONKAK. AFIT ikerketa taldea.

GEE-rako NAZIOARTEKO EKARPENAK. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA eta BORTIZKERIA MATXISTA. EHUko Emakume eta gizonen berdintasunari buruzko Masterreko ikerketa taldea.

BASAURI, ONDARROA eta DURANGOKO EMAKUMEEN ETXEETAN INDARKERIA MATXISTAKO EGOEREI AURRE EGITEKO JARDUNBIDE EGOKIEN IDENTIFIKAZIOA. Deusto Balio Sozialak Ikerketa Taldea.

EMAKUMEEN ETXEEI BURUZKO ENTZUTE-ARIKETA. Beta Aholkularitza.

Txosten honen hurrengo atalean jaso dira lan ildo eta produktu bakoitzaren azalpen zehatzagoak eta baita balorazio orokorrak ere.

5. LAN ILDOAK PAUSOZ PAUSO

Egitasmoaren lan ildo bakoitza jasotzen da pausoz pauso.

5.1. HAUSNARKETA: Gipuzkoako Emakumeen Etxeen gunea

Egitasmoaren **hausnarketa eta berrikuntzarako gune** garrantzitsuenetakoa Emakumeen Etxetako berdintasun teknikari eta dinamizatzaileen gunea izan da. Sei bilera egin dira prozesuan zehar, gehienak monografikoak, edo gehienez ere pare bat gai lantzeko aukera eman dutenak. Saio guztiak ekipamendu ezberdinetan egin dira, eta modu horretan, lurraldeko Emakumeen Etxe ezberdinak ezagutzeko aukera egon da.

Goiz osoko saioak izan dira eta nahiz eta Emakumeen Etxetako dinamizatzaileek lan ordutegi aldetik bileretan parte hartzeko zailtasunak izan, parte hartzea oso altua izan da, eta bilera amaieran egindako balorazioetan jasotakoaren arabera beraien lanerako oso baliagarria.

Guztira, 12 udalerrrik eta 2 eskualdek parte hartu dute prozesuan eta azkenengo bi saioetan partaide berri bat batu da prozesura, Oñati, Emakumeen Etxearen prozesua abiatu berri baitute.

Batez beste 9 udal ordezkatzan dituzten 12 pertsona egon dira saio bakoitzean.

Bestetik, sarearen edo langunearen inguruan egindako balorazioa oso positiboa izan da, eta bai edukiak, bai hizlari eta dinamizatzaileak, bai metodologia eta baita harreman sarea ere oso positiboki baloratuak izan dira parte hartzaileen aldetik.



Beheko taulan saio bakoitzaren informazioa dago:

SAIOAK

2021-10-28, Hernani.

- Helburua: Proiektuari hasiera ematea, helburuak eta prozesua kontrastatzea.
- Dinamitzailea: Elhuyar
- Partaide kopurua: 10 udal eta 16 partaide

2022-01-27, Zumaia.

- Helburua: Indarkeria matxista kasuen Emakumeen Etxeetako kudeaketa ezagutu, eta hau hobetzeko aukerak aztertzea.
- Dinamitzailea: Sortzen aholkularitza
- Partaide kopurua: 7 udal eta 8 partaide

2022-03-17, Zarautz.

- Helburua: Emakumeen Etxeen izaera publiko komunitarioan sakontzea.
- Dinamitzailea: AFIT ikerketa taldea
- Partaide kopurua: 10 udal eta 17 partaide

2022-06-05, Urola Garaia.

- Helburua: Emakumeen ahalduntzerako nazioarteko ekipamenduak ezagutzea
- Dinamitzailea: EHUko emakume eta gizonen berdintasunerako Masterreko ikerketa taldea.
- Partaide kopurua: 8 udal eta 11 partaide

2022-10-06, Arrasate.

- Helburua: Indarkeria matxista kasuen esku hartzea hobetzea.
- Dinamitzailea: Sortzen eta *Deusto balio sozialak* ikerketa taldea
- Partaide kopurua: 8 udal eta 11 partaide

2022-12-15, Astigarraga.

- Helburua: Sistematizaziorako tresnak ezagutzea eta proiektua baloratzea.
 - Dinamitzailea: Elhuyar
 - Partaide kopurua: 8 udal eta 8 partaide
-

5.2. IKERKETA:

Unibertsitateko ikerlarien ekarpenak ezinbestekoak izan dira proiektua aberasteko. Bi unibertsitateetako hiru ikerketa-taldeek parte hartu dute egitasmoan: EHU-tik Antropologia Feministako Ikerketa Taldea eta Emakume eta gizonen berdintasunerako masterreko Ikerketa Taldea, eta Deustoko Unibertsitateko *Deusto Balio Sozialak* Ikerketa Taldea.

PARTE HARTZAILEAK




2 unibertsitate

3 ikerketa talde

18 ikerlari

Ikerketa-taldeak koordinatzeko, egitasmoaren hasieran eta bukaeran ikerketa-talde guztiekin batera bilerak egin dira, eta egitasmoan zehar banakako koordinazio bilerei esker hausnarketa gunearen eta ikerlarien arteko elkarlana sustatu da.

2022ko maiatzean mahai-inguru bat antolatu zen ikerketen nondik norakoak Aldundiko Gizarte Politikako, Estrategiako eta Berdintasunerako Organoko zuzendari eta teknikariek hobetu ezagutu zituzten.



2022ko udazkenean ikerketa-taldeen beren ekarpenak biltzen dituen txostenak aurkeztu zituzten.

Ikerketa hauetan Emakumeen Etxei buruzko eremu ezberdinak aztertu dira, **Gipuzkoako, Euskal Herriko eta nazioarteko esperientziak** oinarri hartuta.

KANPOKO ESPERIENTZIAK



5 Gipuzkoakoak

4 Bizkaikoak

1 Nafarroakoak



3 Espainiar Estatukoak

3 Italiakoak

3 Mexikokoak

Aztertutako gai ei dagokionez, hauexek izan dira:

- Instituzioa eta herri mugimenduen arteko harremana, Etxeen kudeaketa ezberdinak, aniztasunaren trataera.
- Atzerriko ekipamenduen eta bertakoen ezaugarriak eta marko arautzaileak, indarkeria matxistari aurre egiteko ekipamenduak eta emakumeen ahaldunderako ekipamenduak (filosofia berdina baina funtzio ezberdina).
- Indarkeria matxistan esku-hartzeko praktika onak.

IKERKETAK

Mugimendu feminista eta Emakumeen Etxeak: Harremanak eta erronkak. EHUko AFIT ikerketa taldea.

Etxeen kudeaketa ereduak

Erakunde eta mugimenduen arteko harremana

Erabiltzaileen aniztasuna

Emakumeen ahaldundera eta bortizkeria matxistari aurre egiteko nazioarteko esperientziak. EHUko Emakume eta gizonen berdintasunari buruzko Masterreko ikerketa taldea.

Espainiar Estatuko Emakumeen Etxe ereduak

Italiako Emakumeen Etxe ereduak

Mexikoko Emakumeen Etxe ereduak

Basauri, Ondarroa eta Durangoko Emakumeen Etxeetan indarkeria matxista egoerei aurre egiteko jardunbide egokien identifikazioa. Deustoko Unibertsitateko *Deusto Balio Sozialak* Ikerketa Taldea.

Intersekzionalitatearen lanketa (emakume migratu, LGTBI, adina...)

Indarkeriaren erreparazioa, errekonozimendua eta memoria kolektiboaren lanketa.

Erakundeen arteko koordinazioa (Aldundiak, udalak, Gizarte Zerbitzuak, Emakumeen Etxeak)

Ikerketen sintesiak eta ondorio nagusiak:

Ikerketa taldea	Antropologia Feministarako Ikerketa Taldea (AFIT)
Ikerketaren izenburua	Mugimendu feminista eta Emakumeen Etxeak: Politika egiteko moduak, harremanak eta erronkak
ONDORIOAK	
<p>Ikerketan Euskal Herriko zazpi Emakumeen Etxe hauen analisisa aurkezten da: Gipuzkoako lurraldeko bost (Arrasate, Azpeitia, Donostia, Errenteria eta Hernanikoak), Iruñeako, eta Bilboko San Frantzisko auzoan oraindik sortu gabe dagoen Koloretxe egitasmoa.</p> <p>Aztertu diren arloak hauek izan dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Emakumeen Etxeen sorrera testuingurua. - Emakume Etxeen kudeaketa ereduak. - Erakundeen, Emakumeen Etxeen eta mugimendu feministaren arteko harremanak. - Herriko beste eragileekin aliantzak. - Aniztasunaren trataera Emakume Etxeetan. <p>1. Emakumeen Etxeen sorrera testuingurua</p> <ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen Etxeak kasu gehienak partaidetza prozesuen bidez sortu izan dira, lehenengo sortu zinenak izan ezik. Partaidetza prozesu horiek mugimendu feministaren aldarrikapenei erantzunez bultzatu dira, eta gehienetan tokiko udalek sustatuta. • Partaidetza prozesu bakoitzak balio izan du ekipamendu horiek udalerrien errealitatera egokitzeko, baita administrazioaren eta mugimendu feministaren arteko harremanak hobetzeko ere. Aurrera begirako elkarlanerako oinarriak ere ezarri izan dira partaidetza prozesuen bidez. • Prozesu hauek elkarren arteko ezagutzan sakontzeko eta harreman horizontalagoak izaten laguntzeko ere baliagarriak izan dira. <p>2. Emakumeen Etxeen kudeaketa ereduak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Partaidetza prozesuetan ekipamenduetan emakumeen parte hartzea egonkortzeko estrategiak aurreikusi izan dira. Etxe batzuek ko-gestio ereduak jarri dute martxan, hau da, emakumeak eta mugimendu feminista elkarte juridiko baten baitan antolatu, eta etxearen kudeaketan zuzenean parte hartzen dute, ekipamenduko langilearen kontratazioa ere bere gain hartuaz. Beste kasu batzuetan aldiz, kudeaketa zuzenean ez eman arren, definituta dituzte parte hartze hori bermatzeko organoak, hala nola Emakumeen Mahaiak edo parte hartze Kontseiluak. • Parte hartzean oinarritutako kudeaketa sistema ezinbestekoa da Udalak egiten duen Emakumeen Etxearen kudeaketan eragiteko, eta ondorioz emakumeak politika publikoetan ahalduntzeko. • Parte hartzea oinarri duen kudeaketa ereduak ordea, maiz ez da formalizatua geratzen, eta egonkortzeko bitartekoak bilatzea da aurrera begirako erronketako bat, gehiegi burokratizatu gabe. • Emakumeen Etxeetako zerbitzuen eskaintza eta ekimen gehienak ekipamenduan bertan egiten dira, eta galdu egiten da beste espazio batzuen erabilerak izan dezakeen onura. Komenigarria da beraz kasu bakoitzean baloratzea ekimena Emakumeen Etxe bertan egitea komeni den edo beste espazio bat erabiltzea onuragarriagoa den. <p>3. Erakundeen, Emakumeen Etxeen eta mugimendu feministaren arteko harremanak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Prozesu parte hartzaileek, aurrez esan bezala, emakumeen taldeen eta udalaren arteko harremana hobetzen dute oro har. Baina denboran zehar harreman hori zaindu beharra dago, udalako ordezkari politiko eta teknikoak aldatu egiten direlako, eta baita emakumeen mugimenduetako ordezkariak ere. Prozesutik eratorritako harremanak eta ikuspegi konpartitua mantentzea erronka nagusietako bat da, zaindu ezean Udalaren inplikazioa denborak aurrera egin ahala ahulduz joan daitekelako eta baita mugimendu feministarena ere. 	

- Harremanak eta espazioaren kudeaketa zuzena egiteko ezinbesteko lana egiten dute Etxeetan lan egiten duten teknikariek eta dinamizatzaileek.

4. Herriko beste eragileekin aliantzak

- Emakumeen Etxeak aliantzarako espazioak dira, instituzio eta herri mugimenduen artekoak, baita herri eragile ezberdinen artekoak ere.
- Ekipamendu hauek dira, ikerlarien ustez, gaur egun gizartean dauden herritarren eta instituzioen arteko partehartze ereduaren artean arrakastatsuenetariko bat.

5. Aniztasunaren trataera Emakume Etxeetan

- Emakumeen Etxe guztietan lantzen den gaia da, programazioa lantzean, babes taldeak sortzean eta abar.
- Gehien lantzen diren alorrak etnia eta jatorri aniztasuna dira.
- Feminismoa ulertzeko modu anitzak islatzen dituzte.
- Aniztasunean gehiago sakontzeko beharra sumatzen da emakume gazteak edo adinekoak erakartzeko, baita LGBTQ+ kolektiboko partaideak erakartzeko ere, hau da, bestelako bereizkeriak kontuan hartzeko.

Ikerketa taldea	EHUko Emakume eta gizonen berdintasunari buruzko Masterreko Ikerketa Taldea
Ikerketaren izenburua	Nazioarteko ekarpenak. Emakumeen ahalduntzea eta bortizkeria matxista

ONDORIOAK

Ikerketa honek bi helburu nagusi izan ditu.

- Emakume eta gizonen berdintasunerako marko arautzaileak Emakumeen Etxeetan duen eragina ikertzea.
- Mexiko, Italia eta Espainiako beste esperientzien bidez ikaspenak ateratzea.

Aztertutako adibideetatik atera diren ondorioak hiru ataletan bildu dira: Marko arautzailea eta baliabideak indarkeria Vs ahalduntzea, eta gardentasuna eta kontu-ematea.

1. Marko arautzailea eta baliabideak

- Mexikoko kasua aztertu ostean ikusi da, Mexikon Estatu Federaleko legedian eta tokiko legedietan arautzen direla ekipamendu mota horiek. Egitura aldetik Nazio Batuen Erakundearen estandarren arabera izan beharko luketela ezartzen da, eta ekipamendu horien finantzazioa eta antolaketa ere hitz egiten da Mexikoko legedian.
- 1/2023 Legegintzako Dekretuak, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu batekina onartzen duenak Emakumeen Etxei eta Ahalduntze Eskolei beren izaera aitortzen die, eta zehazki 7.artikuluari, udal ekipamendu publiko bezala definitzen ditu Emakumeen Etxeak eta udalen zereginetan, espazio eta zerbitzu hauek sustatuz emakume zaurgarrienei laguntzeko balio dutela aitortzen die.
- Gehiegizko zurruntasunean erori gabe, eta tokiko aniztasunari leku eginaz, Euskal Herriko Emakumeen Etxeek marko arautzaile zehatzagoa beharko luketela ondorioztatzen du ikerketak, eta baita baliabideen inguruko adostasuna ere.

2. Indarkeria vs. ahalduntzea

- Italian eta Mexikon oso bereizketa garbia dago Indarkeria matxistaren esku-hartzea egiten duten ekipamenduen eta emakumeen ahalduntzerako ekipamenduen artean. Nahiz eta bi ekipamenduek emakumeen ahalduntzearen ikuspegitik egin lan, eta bietara indarkeria pairatu duten emakumeak hurbildu, eskaintzen diren zerbitzuak ezberdinak dira.
- EAEko Zerbitzu Sozialen Kartan, zehaztuta daude, Gizarte Zerbitzuek etxeko indarkerian eta emakumeen aurkako indarkerian esku hartzeko eskaintzen dituzten zerbitzuak. Aldiz, ez daude inon zehaztuta,

emakumeen ahalduntzea sustatzea helburu duten Emakumeen Etxeetako zerbitzuak zein diren. Hala ere Berdintasun Legeak 7. Artikuluan egiten dien aipamenarekin aurrera pauso bat suposatu du.

3. Gardentasuna eta kontu ematea

- 1/2023 Legegintzako Dekretuak, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak bi printzipio berri jasotzen ditu besteak beste, gardentasuna eta kontu-ematea. Egiten den lanaren aitortza bermatzeko, beharrezkoa da egiten den lana ezagutzea. Datuen gardentasunak eta kontu ematea norentzat eta zertarako den argi izatea komeni da. Gardentasunaren, kontu-ematearen beharra zerbitzuen jarraipena egin eta hobetzeko izan behar da, emakumeak eta mugimendu feminista Etxearen partaideago egiteko, ez ordea gehiegizko burokratizazio batean erortzeko.

Ikerketa taldea	Deustoko Unibertsitateko <i>Deusto balio sozialak</i> Ikerketa Taldea
Ikerketaren izenburua	Basauri, Ondarroa eta Durangoko Emakumeen Etxeetan indarkeria matxista egoerei aurre egiteko jardunbide egokien identifikazioa

ONDORIOAK

Bizkaiko zenbait Emakumeen Etxek indarkeria matxistan egiten duten esku-hartzea aztertu ostean, orokorrean bi estrategia daudela ondorioztatu da: *emakumeen aurkako indarkeria matxistan esku hartze espezifikoak egiten duten Emakumeen Etxeak* eta *Esku-hartze espezifikoak ez dauzkaten Emakumeen Etxeak*. Analisiaren ondorio gisa bost ideia azpimarratu dira:

1. Protokoloen inguruan

- Zerbitzu espezifikoak ez dauzkaten Etxeetan, esku-hartze protokoloek garrantzi berezia hartzen dute, deribazioak garrantzi handia duelako. 1/2023 Legegintzako dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartu ondoren, "Erakundeen arteko III. Akordioa" jarri da martxan eta bertan orain arte zeuden eragileez gain Berdintasun Sailen eta Emakumeen Etxeek garrantzia hartuko dute.
- Bestetik, interesgarria izango da lurralde mailan dauden zerbitzuen mapa ezagutzea indarkeria matxistan esku-hartzeko dauden aukerak ezagutarazteko.

2. Arreta pertsonalaren garrantzia

- Emakumeak Emakumeen Etxeetara joaten dira, bertan jasotzen duten arreta oso garrantzitsua delako, eta horregatik, Emakumeen Etxeetan arreta pertsonal eta profesionalaren presentzia egotea garrantzitsua da, nahiz eta eskaintzen diren jarduera asko ikuspegi komunitario edo kolektibotik izan.
- Emakumeen Etxeek duten malgutasunak aukera ematen du era informal baina profesional batean emakumeak artatzeko. Horretarako, ordea, baliabide pertsonal eta materialak behar dira, eta horiek ez daude Emakume Etxe guztietan.

3. Koordinazioa eta saretzea

- Koordinazioaren garrantziaz asko hitz egiten da indarkeria matxistaren esku-hartzea hobetzeaz ari garenean. Koordinazioa eta saretzea, era zabalagoan batean ulertzea komeni da, alegia, Udaleko gainerako zerbitzuetan Emakumeen Etxeak ezagutaraziz, udaletako sail ezberdinekin koordinatuz, edota udal kanpoko zerbitzuekin koordinatuz, hala nola osasun zentroekin.
- Aipatu beharra dago Emakumeen Etxeen arteko sareek ere izugarri indartzen dituztela babes eta ahalduntzerako baliabide hauek.

4. Intersekzionalitatea eta aniztasuna

- Behar gehien daukaten emakumeengana iristeko erabiltzen den estrategia izaten da talde ez-mixtoak sortzea, esaterako; emakume migratuena, etxeko langileena, indarkeria pairatu duten emakumeena... Bestetik, Emakumeen Etxeak espazio mixtoak dira, non denek elkar gurutzatzeko aukera duten.
- Hala ere, badira kolektibo batzuk gutxiago hurbiltzen direnak. Adibidez, gazteak edo LGTBI kolektibokoak.

5. Erreparazioa

- Azpimarratzekoa da Emakumeen Etxeek emakumeen erreparazioari lotuta egiten duten lana. Osatze prozesuak sustatzen dira, epe mugarik gabekoak eta doakoak, babes kolektibo eta profesionalak lagunduta. Lan ildo honetan arreta jartzen jarraitu beharko litzateke, potentzialitate handia baitute.

Ikertzaileen baloraziotik ateratako ondorio nagusiak:

Proiektuan parte hartzea ikerketa talde guztietako partaideentzat izan da interesgarria. Batzuk jada hasiak ziren Emakumeen Etxeak ikertzen, eta beste batzuk, zuzenean ikerketetan aritu ez arren Emakumeen Etxeen inguruko ezagutza bazuten.

Ekipamendu hauek potentzialitate handia dute, administrazioa beste era batera ikusi, ulertu eta kudeatzeko. Oso interesgarria da herri mugimenduekin duten lotura. Normalean, herri batean Emakumeen Etxea badago, mugimendu feministak sustatu duelako da. Ekipamendu hauek ez daude oraindik erabat lurralde osora hedatuta.

Aipatu beharra dago mugimendu feminista Emakumeen Etxeetatik gertu kokatzeak egiten dituela berezi ekipamenduak, eta sorrerarako partaidetza prozesuek asko indartzen dute gertutasun hori.

Baina Emakumeen Etxeak irekita dauden bitartean harreman hori zaintzen ez bada, urruntzeko arriskua ere badago. Bertan egiten den aniztasuna kontuan hartzeko saiakera planifikatutik ere asko ikas daiteke, nahiz eta hobetzekoak beti egon.

Marko arautzaile berrituak aukerak ematen ditu Emakumeen Etxeak ekipamendu publiko moduan indartzeko. Momentuz legeak ekipamendu hauen lana aitortzen badu ere, ez ditu definitzen, ez du esaten zer diren, eta ez da ekipamendu hauen baliabideez ere hitz egiten. Badago gehiago zehazten jarraitzeko beharra.

Bestetik, indarkeria matxistan esku-hartzea oso modu ezberdinean egiten du Emakumeen Etxe bakoitzak. Orokorrean, herriko indarkeria matxistari buruzko protokoloetan txertatu beharko liratekeen ekipamenduak dira, horretarako moduak zehaztu behar diren arren. Beste erronka nagusi bat Emakumeen Etxeak gainontzeko ekipamenduekin eta zerbitzuekin duten koordinazioa hobetzea izan behar da. Gizarte Zerbitzuekin koordinatzeaz gain, udaletako beste sailekin edota udaletik kanpoko beste zerbitzuekin ere koordinatu beharko luke. Ekipamendu publiko diren heinean, gehiago hartu behar dira kontuan, ezagutzera eman, egiten duten lana ulertu, aitortu eta elkarren artean sinergiak bilatu.

Azkenik, mahai gainean jarri da ekipamendu hauetan profesionalak egotearen garrantzia. Esku hartzeak, deribazioak egiteko (ez soilik indarkeriaren gaitetan, baizik oro har) ezinbestekoa norbait egotea ekipamenduan. Era berean, harrera lana, programazioa antolatu, espazioak kudeatu, egoera pertsonal gogorren aurreko testigantzak artatu, e.a egin behar izaten dute. Beraz, aitortu gabeko funtzio asko betetzen dituzte pertsona hauek. Aurrera begirako erronken artean gai hau lantzeko beharrez ere hitz egin da.

5.3. ESPERIMENTAZIOA:

Esperimentazioaren helburua izan da Emakumeen Etxeetatik **indarkeria matxistan egiten den esku-hartzea hobetzea**.

2018an honako ikerketa argitaratu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak: *“Indarkeria matxistari lotuta, Emakumeen Etxeen zeregina”*. Ikerketa horretan argi uzten zen Emakumeen Etxeek funtzio garrantzitsua betetzen dutela indarkeria matxistaren prebentzioan, detekzioan, deribazioan eta erreparazioan.

Ekipamenduetan eskaintzen diren ikastaro eta zerbitzu kolektiboek emakumeen ahalduz indibiduala eta soziala ekartzen dute eta bitarteko sozial, komunitario eta publikoak eskaintzen dituzte. Bestetik, egiten den harrera pertsonalak, dinamizatzaileen, elkarten edo aholkularitza zerbitzuen bidez, edozein emakumeri bizitzako fase guztietan laguntzeko aukerak ematen ditu, bai mikromatxismoei erantzuteko edota indarkeria zuzenetik ateratzen laguntzeko ere.

Lan horretan urteak daramatzaten arren, elkarrengandik ikasi, hausnartu eta esku-hartzeak hobetzeko asmoz Sortzen aholkularitzarekin pilotaje bat egin da Urola Garaia mankomunitatean eta Errenteriako Udalean.

Hurrengo orrialdeko taulan laburbildu da esperimentazioak eman duena.

ELKARRIZKETAK



Indarkeria pairatu duten 5 emakumeri elkarrizketa

PARTE HARTZAILEAK



6 Gizarte langile
4 berdintasunetik
2 zinegotzi

LAN-SAIOAK



9 lan saio guztira

ESPERIMENTAZIOA

Analisi fasea. Gipuzkoako Emakumeen Etxeetan egiten den esku hartzearen analisia egin da, bertako dinamizatzaileei eta zenbait gizarte langileri egindako galdeetegi bidez. Atal hauek aztertu dira:

- Prebentzioa eta harrera
- Lehen esku-hartzea
- Erreparazio neurriak
- COVID19 garaia
- Gizarte langile eta Emakumeen Etxeen arteko harremana

Esperimentazio fasea. Urola Garaian eta Errenterian, Gizarte Langile eta Emakumeen Etxeetako dinamizatzaileekin esku hartzea hobetzeko tresnak diseinatu eta probatu dira.

- Elkar ezagutzarako saioa
- Harrerak egiteko argibideak eta tresnak
- Koordinaziorako fitxak
- Sistematizaziorako eta jarraipenerako tresnak

Sortutako dokumentuak.

- Pilotajearen memoria
- Indarkeria matxistaren aurrean esku-hartzea hobetzeko tresnak

Esperimentazioa baloratu da prozesuan parte hartu zuten Urola Garaiko eta Errenteriako gizarte langile, Emakumeen Etxeko dinamizatzaile eta berdintasun teknikariek. Hauek dira ondorio nagusiak:



1. Zerbitzuen arteko **elkar ezagutza eta konfiantza** sortzeak uste baino denbora gehiago behar izan du. Ezinbesteko da lehenengo pauso hau era egokian garatzea.
2. **Ikuspegi bateratua** izatea lortu da: Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasun Sailak, Emakumeen Etxearekin batera, Udalaren parte direla ulertzea eta gai honetan denek bat egin behar dutela ulertzea.
3. Emakume asko laguntza bila Emakumeen Etxera joaten direla onartzen da, eta bertan euste eta bideratze lana egiten dela, eta lan hori beharrezkoa dela. Horregatik, **elkarlanean aritu eta adostu** beharko dute zein tresna erabili eta nola koordinatu. Horretarako, "Indarkeria matxistaren aurrean esku-hartzea hobetzeko tresnak" dokumentua oso erabilgarria izango da oinarri moduan.
4. Proba pilotuari esker, inoiz izan ez diren **espazio partekatuek** sortu dira eta zerbitzu bien arteko elkarrizketak izatea ahalbidetu da.
5. Esperimentaziorako **denbora gutxi** egon da, tresnak probatzeko bi hilabeteko epea laburregia baita.
6. Elkar ezagutzaren fasea luzatu eta zabaldu behar da, eta ondorioz udaleko beste zerbitzuek, herritarrek, teknikariek eta politikariek **Emakumeen Etxeak ezagutzeko bitartekoak** jarri behar dira, oso baliabide garrantzitsuak baitira indarkeriaren kontrako politikan eta erreparazioan, eta hala aitortzen zaie 1/2023 Legegintzako Dekretuan, martxoaren 16koan, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenean.

Bestetik, lan ildo hau, hasiera hasieratik **Aldundiko Gizarte Politikako Departamenduarekin** kontrastatu da, eta hainbat bilera egin dira.

- Proiektua aurkeztu eta ekarpenak jasotzeko.
- Indarkeria matxistari buruzko egitasmo esperimentalaren emaitzak aurkeztu eta ekarpenak jasotzeko.
- Emakumeen Etxeen egitasmo osoa partekatu, ekarpenak jaso eta aurrera begirako lankidetzak aukerak zehazteko.


Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak proiektua bere osotasunean baloratzerako orduan hauek izan dira partekatutako ondorio nagusiak:

1. Prozesuak balio izan du **Emakumeen Etxeak hobeto ezagutzeko**, marko arautzailean Emakumeen Etxeen eta Gizarte Zerbitzuen arteko koordinazio beharra aitortzen den momentuan.
2. **Positiboki** baloratu da esperimentazioaren bidez garatu den proiektu pilotua. Indarkeria matxista kasuen aurrean bakoitzak egiten duen lana ezagutzeko eta aitortzeko baliagarria izan dela baloratu da.
3. Indarkeriaren gaiak gain, Emakumeen Etxeek **komunitatearekin lan egiteko** ematen duten aukera eta osasuna eta erreparazioa hobetzeko eskaintzen dutenaren berri izateko, proiektuaren osotasuna ezagutu nahi izan da Gizarte Politikatik eta emaitza guztiak partekatu dira.

5.4. ENTZUTE-AKTIBOA:

Egitasmoari lotuta, **Emakumeen Etxeei buruz dagoen ezagutza, iritziak eta pertzepzioak** ezagutzeko asmoz entzute-ariketa egin da Gipuzkoako bi udalerrietan, Eibar eta Zumaian hain zuzen.

Orotara, 51 elkarrizketa egin dira, 25 Zumaian eta 26 Eibarren. Adina eta jatorria kontuan hartu dira, baita ekipamendu hauekiko hurbiltasun-maila ere.



Ikerketatik jaso diren pertzepzioen laburpena jarraian dago jasota.

HELBURUEN PERTZEPZIOA:

- Ezagutzen dituztenek AHALDUNTZEAREKIN eta SARETZEAREKIN, lotzen dituzte.
- Ezagutzen ez dutenek: emakumeentzat direla, eta berdintasuna bultzatzeko direla.

ATXIKIMENDUA eta ZABALKUNDEA

- Ezagutzen dutenek: inplikazio maila altua sumatzen dute. Zabaltzeko ahalegina eta nahia, baina kolektibo batzuk falta direla adierazpen dute (gazteak).
- Urrutiago daudenek: *Ez da emakume guztientzat, migratuak edo beharrak dauzkatena joaten dira. Inplikazio gehiegi eskatzen du eta periferian geratzea nahiago.*

AUKERAK

- Ez dira ekipamendu soil bat. Elkargune bat dira, emakumeen parte hartzea, ahalduntzea eta harremantzea bultzatzen dute. Integrazioarako eta sozializazioarako guneak.
- Emakumeen beharrei bide emateko direla pertzibitzen da, kolektibotasunaren eta komunitatearen bitartez.

ERRONKAK

- Ekipamendu hauen berezitasuna ez da ezagutzen edo pertzibitzen kanpotik. Batzuek kolektibo itxi bezala ulertzen dituzte. Etengabe irekitasuna eta aniztasuna bilatu arren, ez da beti lortzen.
- Baliabide oso urriak dituztela pertzibitzen da ekipamendu publikoak izateko.

6. EGITASMOAREN BALORAZIOTIK JASOTAKO ONDORIOAK

Proiektuaren amaieran parte hartu duten eragileen balorazioa jaso da, eta balorazio horietatik hauek dira ateratako ondorio nagusiak:

- **Proiektuaren abiapuntua marko garbirik gabe**

Egitasmoa abiatzea ez da lan erraza izan, ez baitzegoen alde zurretik Emakumeen Etxeei buruzko lurralde mailako lanketarik. Udal ekipamenduak izanda, Aldundiaren sustapen papera ez zegoen oso garbi, eta zalantza ezberdinak sortu ziren. Emaitzarekin, ordea, pozik geratu dira parte hartu duten eragile guztiak.

- **Egitasmo aitzindaria eta lege markoan kokatua**

Egitasmoa 2021ean hasi zen eta 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak egitasmoaren filosofia eta egokitasuna indartu ditu.

- 7. artikuluan: Udalek sustatu beharreko ekipamendu izaeraren aitortza.

- **Emakumeen Etxeak ezagutarazteko beharra**

Egitasmoaren ondorio nagusietako bat izan da ekipamendu hauek ez direla nahikoa ezagutzen. Batez ere, indarkeria matxistaren lan larroan eta entzute-aktiboaren lan larroan atera dira ondorio hauek.

Emakumeen Etxeak zer diren eta zer eskaintzen duten ezagutarazteko, udal bakoitzak egin dezakeenak gain, balioan jarri dute egitasmo esperimental honen bidez sortu den material guztia ezagutarazteko beharra. Aldundiak, lurraldeko berdintasun politikak sustatzeko zeregina duenez, ekipamendu hauen zabalkundearen joko dezakeen papera garrantzitsua da.

- **Lokaletik ekipamendura**

“Emakumeen etxeak ez dira eraikin hutsak” zioen entzute-aktiboaren ariketako beste ondorio batek. Bertan ematen diren harremanek, sareak sortzeko duten gaitasuna eta emakumeen egoera pertsonaletan laguntzeko egiten den bideratze/aholkularitza lana garrantzitsua da. Lokalak izatetik ekipamendura pasatzeko Emakumeen Etxeetan egiten den harrera profesionala ez da nahikoa landu. Hori erakusten dute Emakumeen Etxeetako arkitektura edo espazioen banaketak, baita Emakumeen Etxeek izan ohi dituzten giza baliabideek ere.

Harrera lanak oso baldintza ezberdinetan ematen dira Emakume Etxe bakoitzean, eta langile hauen funtzioetan ez da egoten aurreikusita harrera eta deribazio lana. Normalean, programazioa eta

espazioaren kudeaketaren lanak aurreikusten dira bakarrik. Emakumeen Etxeetako profesionalen funtzioak gehiago zehaztu beharko lirateke.

- **Komunitatearekin lan egiteko eredu posible bat**

Egitasmo osoan zehar balioan jarri da ekipamendu hauek duten gaitasuna komunitatearekin lan egiteko. AFITen ikerketan azpimarratu dute herriko mugimendu feministaren eskakizunetatik abiatu izanak interes sozial bat pizten duela ekipamendu hauen sorreretan. Horrez gain, partaidetza prozesuetatik eraikitzen direnez, ordezkari politikoen, berdintasun teknikarien, mugimendu feminista eta bestelako emakumeen artean elkar topatu, konpartitu, ezagutu eta harremanak sustraitzen dituzten egitasmoak direla.

Askok gainera, behin ekipamendua irekita, emakumeen parte hatzerako espazioak aurreikusten dituzte proiektuaren jarraipenerako.

Harreman horizontalagoak eta demokratikoagoak eraiki ohi dira herritarren eta administrazioaren artean. Emakumeen Etxeen ezaugarri hau zaintzeko modukoa dela ondorioztatu da, baita bestelako ekipamendu mota batzuentzako eredu ere izan daitekeela.

- **Lanean jarraitzeko beharra**

Egitasmo esperimentalak izanik, berau garatzeko epeak mugatuak izan dira. 16 hilabeteko proiektua izan da, eta lan lerro anitz izan dituena. Material asko sortu da eta gai asko jorratu dira hainbat agenterekin. Emaizekin asetasun handia islatu den arren, balorazioetan, ia gehienek azpimarratu dute lan lerro gehienek denborak gehiago beharko luketela emaitza sendoagoak ateratzeko.

Horregatik, agente guztiek azpimarratu dute Emakumeen Etxeen sareak elkarlanean jarraitzeko beharra. Bestetik, egindako lana eta sortutako materialak ezagutarazi eta probatzeko

Aldundiko Gizarte Politikarekin eta udaletako Gizarte Zerbitzuekin elkarlanean jarraitzeko beharra ere mahai gainean jarri da, kasuen kudeaketak eta deribazioak hobeto lantzeko, ekipamendu eta zerbitzu guztien artean osagarritasuna sustatzeko helburuarekin.

Azkenik, emakumeen partaidetza soziopolitikoak, mugimendu feministaren aktibazioa eta ekipamendu hauen gaitasuna komunitatearekin lan egiteko lan ildoari sendo heltzea ere garrantzitsutzat jo dute egitasmoan parte hartu duten agente gehienek.

7. AURRERA BEGIRA KONTUAN HARTZEKOAK

Egitasmo esperimentalaren amaieran egindako balorazioetan ateratako ikaspenetatik, aurrera begira lanean jarraitzeko identifikatu diren gaiak zerrendatu dira atal honetan. 10 izan dira aurrera begira kontuan hartzeko identifikatu diren gaiak:

1. Emakumeen Etxeei buruz sarean lan egitea

Lehen ondorio argia, balorazio orri guztietan azaldu dena, Gipuzkoako Emakumeen Etxeei buruz sarean lan egiteko beharra izan da.

2. Lidergo konpartituaren filosofiarekin lan egitea

Kontuan hartu beharreko gai garrantzitsua da “egiteko moduen” ingurukoa. Batez ere sarean azpimarratu den arren, beste hainbat agentek ere azpimarratu dute egitasmo honen zailtasuna, eta era berean balioa, lidergo konpartitua izatea dela. Bide honetan, egitasmo esperimentalak agente ezberdinen arteko konfiantza indartzea ekarri du.

Izan ere, Emakumeen Etxeak udal-ekipamenduak badira ere, emakume mugimenduen aldarrikapen historiko bat ere badira, eta herrietako emakume askok bere sentitzen duten Etxeak gainera.

Horrela, garrantzitsua izango da inplikazio teknikoaz gain, herritarrena eta arduradun politikoena ere presente egotea.

Aurrera begira, agente guzti hauen iritzia kontuan izateaz gain, proiektuaren gidaritzza udalen eta Aldundiaren artean konpartitua izatea garrantzitsua izango da. Izan ere, ekipamendu publikoak diren heinean udalak dira kudeaketaren eskumena dutenak, eta Aldundiak aldiz udal berdintasun politiken markoan sustapen lana egin dezake.

3. Kanpora begira ere lan egitea

Emakumeen Etxeen fenomeno jada ez da berria. Berria dena gaur egun izaten ari den zabalpena da, batez ere Gipuzkoan. Azken urteotan asko aztertu dira, autodiagnostiko, ebaluaketa, eta zenbait unibertsitateko ikerketa tarteko. Egitasmo esperimentalak lurralde mailako begirada izaten lagundu du, baina begirada hori Emakumeen Etxetatik oso gertu dauden agenteek egin dute soilik. Batez ere, Etxetako dinamizatzaile eta berdintasun teknikariek, Emakumeen Etxeak dauzkaten udaletako ordezkariak, eta Aldundian egitasmo esperimentalean parte hartu duten zerbitzuek.

Aurrera begira, hausnarketa eta ezagutza hauek kanpora begira ezagutarazteko beharraz hitz egin da. Egindako lana konpartitu, Emakumeen Etxeak zer diren ezagutarazi eta agente sozialak egitasmoan gehiago txertatzearekin.

4. Harrera lanak eta deribazioak hobeto antolatzea

Emakumeen Etxeetan egiten den lanaren sistematizazioa hobetzeko beharra agerian geratu da. Beharrezkoa da bertan egiten den lana era argian zehaztea. Ekipamendu hauetan egiten den lana, ikusezina izan da orain arte, eta askotan borondatez eta militantziaz egina.

Emakumeen Etxeak ez dira lokal hutsak, aurrez esan den bezala. Eta ekipamendu hauen balio nagusietako bat izaten da bertaratzen diren emakumeei egiten zaien harrera eta “orientazio” lana. Hurbiltzen den pertsonaren egoeraren arabera ahalduntze eskoletako ikastaroetara, ahalduntze talde espezifikoetara, zerbitzu psikologiko/juridiko/laboraletara, edota Gizarte Zerbitzuetara bideratzea, besteak beste.

Horretaz gain, gero eta gehiago ematen ari da deribazioa, beste zerbitzu batzuetatik Emakumeen Etxetara bideratzea, hala nola, gizarte zerbitzuetatik, Gurutze Gorritik, GKEetatik, eta abar, emakumeak bertan harrera eta orientazioa eman diezaioten.

Kasu gehienetan ez da kontuan hartu izan lan guzti horiek egiteko beharrezkoa den profesionalen perfila, funtzioak, e.a. Ezta ere lan guzti horiek egiteko Emakumeen Etxeek eduki beharko luketen espazio antolaketa ere. Aurrera begira landu daitekeen gai bat izan daiteke.

5. Egitasmo esperimentalean irekitako bideei jarraipena ematea

Egitasmoak ate berri asko ireki ditu. Batetik, harreman internazionalak egin dira beste lurraldeetako antzerako ekipamenduekin. Bestetik, unibertsitatea eta administrazioa elkarlanean jarri ditu.

Elkarlan horrek eman dituen fruituak ere ez dira gutxi izan: indarkeria matxistan esku-hartzeak hobetzeko praktika onak identifikatu, Bizkaiko Emakumeen Etxeekin harremanak zabaldu, administrazio eta mugimendu feministaren nahiz emakumeen arteko harremanak horizontalagoak izateko praktikak identifikatu, komunitatearekin lan egiteko bideak ezagutu, aniztasuna nola landu aztertu, beste lurraldeetan eta bertan dugun legeria eta baliabideak ezagutu eta hobetzeko bideen inguruan hausnartu... Gaia asko eta anitzak izan dira, eta gai berrietarako bideak ere marraztu dira.

Esateko, komunitateak indartzeko ekipamenduan nola bultzatu, ahalduntzea sustatzen dela bermatzeko metodologietan sakondu, egiten den lana sistematizatzeko tresnak sortu, eta abar luze bat. Izenburu honetan esaten den moduan, egitasmo esperimentalean irekitako bideei jarraipena ematea litzateke aurrera begirako erronketako bat.

6. Indarkerian koordinazioa hobetzea

Deribazioen artean bolumen handia hartzen duen gaia indarkeria matxistaren kasuak kudeatzea da. Horretarako prestatuta egon edo ez, de facto emakumeak Emakumeen Etxetara hurbiltzen dira askotan.

Errealitate hau behar bezala kudeatzeko pauso ugari egin dira egitasmo esperimentalean zehar, baina aurrera begira jarraitu beharreko lana izango da zalantzarik gabe.

7. Izaera publiko-komunitarioan sakontzea

Emakumeen Etxeak izaera publiko komunitarioa izatera iritsi badira, mugimendu feministetatik aldarrikatu diren ekipamenduak izan direlako izan da. Hau da, desioa, nahia, denbora eta esfortzua jarri dutelako herrietako zenbait emakumek administrazioarekin batera ekipamendu hauek irekitzeko.

Baina prozesu horietan lortu den horizontaltasuna eta elkarlanerako aukerak ez dira zertan iraunkorrak izan. Ekipamenduak ireki ostean, Emakumeen Etxeek herriko mugimendu feministarekin, eta haratago, herriarekin oro har, harreman horizontal eta gertukoa izateko bideak lantzen jarraitu beharko dira.

8. Ahalduntzeko gaitasuna sistematizatzea

Emakumeen ahalduntzea ekipamenduaren helburu garrantzitsuenetakoa izanik, ahalduntze horretan aurrera pausoak ematen ari garen neurtu eta baloratzeko irizpideei buruz hausnartzea garrantzitsua izango da Emakumeen Etxeen eskaintza asistentzialismoan edo kultur eskaintza feminista batean geratzen ez dela ziurtatzeko.

Erronka zaila da hau, inork ezin baitu inor ahaldundu, norbera ahalduntzen baita. Beraz, Etxeek emakumeen ahalduntzean duten inpaktua neurtzea ez da erraza izango, baina ezinbestekoa da ekipamenduen helburuen betetze maila neurtzeko.

9. Eredua udal bakoitzaren errealitateetara moldatzeko gaitasuna izatea

Gipuzkoan Emakumeen Etxeak zer diren definitzeko ariketa kolektibo bat egin da egitasmo honetan. Helburua adostasun minimo batera iristea izan da, Gipuzkoan dauden Emakumeen Etxeen ezaugarrietan oinarrituta, ekipamendu hauen definizio orokor bat egitea.

Beharrezkoa zela ez du inork zalantzan jarri, garrantzitsua baitzen Emakumeen Etxeak zer diren argitzea. Baina asko azpimarratu den ideia da udalerrien errealitateak anitzak direnez, eredu zurrunegiak eraikitzeak arriskuak ekar ditzakeela. Horregatik, aurrera begira ere, udalerrien errealitate anitzari begira elkarlanean jarraitzeko gaitasuna izan beharko du egitasmoak.

Aniztasunaz hitz egitean, gehienek udalerraren tamainaz eta duten baliabideez ari dira. Zentzu honetan, Tolosaldeko Emakumeen Etxea gertutik aztertu beharreko esperientzia izango da, hogeii udalerrri txikik baino gehiagok hartuko baitute parte eskualdeko egitasmo horretan.

10. Gipuzkoatik kanpoko sareak josten jarraitzea

Azkenik, egitasmo esperimentalean egindako harremanak zabaltzen jarraitzea litzateke kontuan hartu beharreko beste alor bat. Izan unibertsiteateko ikerlariak egindako harremanak zainduz, nahiz harreman berriak egiteko aukerak zabalduz. Euskal Herriko beste hainbat Emakumeen Etxerekin harremanak izateko aukerak sortu baitira egitasmoan zehar, baita hemendik kanpoko beste hiri edo kontinenteetako ekipamendurekin ere.